

## EUSKALTZAINDIKO HILEN ZERRENDA

### IPARRALDEKO URGAZLE BATZUETAZ BI ZEHAZTASUN

**SAINT JAYME, Frédéric** (1862-1938) Donapaulen sortua ta hila, Georges Lacombe-ren osaba, Iholdiko kontseilari general izana, euskaltzale bezain pilotazalea. Honek zuen egin Donapaualeko trinketa. Hiltzean beraren ontasunak oro utzi dizkio sorterriari ta honen lurretan eginak dira beraren Amikuzeko klinika, bai Amikuzeko laborari-lizeoa ere.

**DOURISBOURE, Alexis**, medikua (...-1930). Mugerren jaioa, Senperen hila Adema-enean (Adema Urtsula, Zalduby-ren iloba, ta Blaise Adema-ren arreba zuen emaztea). Azkue lagunda zuen bere kantutegiko bilketan. P. Dourisboure Beskoiztar misiolari (1825-1890) ezagunaren ahaide zitekeen.

**DUFAU, Dominique**, notaria (...-195...) Oaxaca, Mexicon jaioa ta Senpere Barbercencun hila, Senpereko auzapez izanik. Christophe Dufau (1888-1922) musikalaria-riaren anaia: ikus *Gure Herria*, Nehor (Barbier) eta C. Dufau-ren lanak Dominique, honek *Gure Herria*, *E. Jakintza* eta *Gernika*-n idatzi zuen gehienik.

**IRIGOYEN, Dominique**, apeza (15-12-1873/19-3-1944) Altzürükün sortua, ta noski Epherre apezan askazi, Atarratzeko apez nausi hila - Elizako liburu ttipi bat egin zuen.

**MENDITTE, Justin de** (12-6-1867/26-7-1922) Mendikotan sortua eta Atarratzeko apez nausi hila. Muskildiko apez zelarik, 1905 hirian egin zuen bai San Antonio-ko ermitan kantatzeko kantika, bai Aturratzeko Uhart apez nausiarekin Ziberotarrezko katixima, bai Clément d'Andurain adiskidearekin "Uskaldunak Ibañetan" pastorala, 1906.

**ORABE, Charles**, apeza (27-10-1890/17-1-1972) Nahiz Maulen sortua izan Arrokiaga-ko zaukan bere burua. Ziberotarra ederki bazekien eta apezgai zelarik Euskaltzaleen Biltzarrak saristatu zuen. Gero matematika irakasle igorri zuten Maulleko ikastetxera. Bazterretik euskara ere erakusten zeien bere herritarrei (ikus J. L. Davant). Ez du, guk dakigula deus idatzi, ez bederen argitarazi. Aturratzeko zaharretxean hil zen. Gizon argia ta zorrotza.

**URRUSTOY, Simun**, apeza (1-11-1861/14-12-1936) Eskiulako seme, Barkoxeko erretor hila. Predikari handi eta gizon bortitz fama zuen.

**CONSTANTIN, Jean Baptiste**, errienta (1873-1957) Albert Constantin medikuaren aita, Santa Garazin sortua, Izpuran errent egona, Atarratzen hila ziberotarra ta baxenafartarra berdin aise zarabiltzan. "Joanes Garoztarra" izenpean pertsu anitz egin ta sari asko irabazi zuen. "Eskualduna"-ri luzaz astero artikuluak igorri dizkio. Haren idazkiek bildu behar lukete.

P. Xarritton